6. El pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta la Diputación Foral de Gipuzkoa a que transite hacia un sistema público de cuidado de personas mayores.

Donostia, 2020ko irailaren 9a

Donostia, a 9 de septiembre de 2020

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia"

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Portavoz de Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Olaia Duarte López y D.ª Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**45. MOZIO ARRUNTAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 45:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**45. MOZIO ARRUNTAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 45:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**45. MOZIO ARRUNTAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 45:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**45. MOZIO ARRUNTAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 45:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**45. MOZIO ARRUNTAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 45:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**45. MOZIO ARRUNTAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 6 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 45:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:00ETAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:20AN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:00 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:20 H.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Anoetako etxabeak direla eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los bajos de Anoeta.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo

Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakar, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN Anoetako beheko lokaletan diren hezetasun arazoez egindako interpelazioaren ondorioz.

municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS relativa a los problemas de humedades en los bajos de Anoeta.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 02-166/2018 Foru Dekretuaren bidez, lankidetza-hitzarmen bat onartu zuen, Udalarekin eta Anoeta Kiroldegiarekin egindakoa, 4 milioi eurorekin finantzatzeko Anoetako estadioa eta miniestadioa birmoldatzeko eta belar-hockeyko zelai bat egiteko obrak.

Foru teknikariek hitzarmen horretan hartutako erabakiak betetzen direla gainbegiratu zuten, Anoeta Kiroldegiak emandako dokumentazioan oinarrituta. Hori dela eta, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak, aztertutako alderdi horiek berriz begiratzeko eskatu zio Donostiako alkateari 2019ko ekainean, konponbide bat bilatzeko eta, hartara, hitzartu zituzten baldintzak betetzeko. Era berean, sortutako egoera zela eta foru erakundeak zuen kezka ere azaldu zion.

Txosten horrek orduan nabarmentzen zuen arazoetako bat biltegietara ura sartzea zen. Hauxe zioen txostenak: “Zuritu egin behar da zergatik kendu den biltegi aldeko sabai faltsua eta isolamendua, bai eta zer-nola konpondu asmo den ura pasatzearena (biltegietan ura dela erakusten duten argazkiak ditut)”.

Halaber, jartzen zuen harmailak egiteak erasan egin ziela eta, ondorioz, luzatu egin

JUSTIFICACIÓN

La Diputación Foral de Gipuzkoa mediante decreto foral 02-166/2018 aprobó un convenio de colaboración con el ayuntamiento y Anoeta Kiroldegia para financiar con 4 millones de euros las obras de remodelación del Estadio de Anoeta, Miniestadio y la construcción de un campo de hockey hierba.

La supervisión por parte de técnicos forales del cumplimiento de los acuerdos tomados en el citado convenio, a partir de la documentación facilitada por Anoeta Kiroldegia, llevó al diputado foral de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes en junio de 2019 a dirigirse al Alcalde de la ciudad para solicitar la revisión de los aspectos analizados al objeto de encontrar una solución y con ello dar cumplimiento a los requisitos pactados previamente. Asimismo, traslada la preocupación del ente foral ante la situación generada.

Entre los aspectos que el citado informe destaca, se advierte de los problemas que hay ya en ese momento de filtraciones de agua en la zona de los almacenes. En el informe se cita textualmente “Se deberá justificar porqué se elimina el falso techo y el aislamiento en la zona de almacenes, así como, cómo se prevé resolver las posibles filtraciones de agua (tengo fotos con agua en los almacenes)”.

Asimismo, informa que con las afecciones en la construcción de los graderíos se ha tenido que

zirela federazioen sabai aizunetako lanak, osorik aldatu behar izan zituztela eta. Eta sabaiek isolamendua izan behar zutela exijitzen zuen Foru Aldundiak.

ampliar los trabajos en los falsos techos de las federaciones, teniendo que ser sustituido en su totalidad. Se exige por parte de la Diputación foral que “el mismo deberá disponer de aislamiento”.

Aldundiko teknikariek orain dela urtebete baino gehiago egindako oharrak goiti-beheiti, arazo asko aurkitu ditu federazio batek baino gehiagok aurtengo abuztuan Anoetako azpiko lokaletara itzuli denean (siratsa eginda zoruan, itoginak goitik behera eta hezetasunak paretetan). Batez ere itoginak direla salatu dute, Ligan estadioa garbitzekoan sortutakoak, eta horrela ezin dutela normal aritu haiek han.

A pesar de las advertencias realizadas por los técnicos forales hace más de un año, durante el mes de agosto de este año, distintas federaciones deportivas han venido detectando numerosos problemas tras su regreso a los bajos de Anoeta; problemas tales como inundaciones, goteras o humedades. Fundamentalmente, denuncian goteras debido a la limpieza del estadio durante la Liga, lo cual hace imposible el normal funcionamiento de sus federaciones.

Jakinarazi dutenez, zelaiko harmailak garbitzen dituzten, errekan bezala etortzen zaie ura, hezetasun handia sortzen die instalazioetan eta arriskuan jartzen du pertsonen osasuna; eta, hori dela eta, federazio batzuek atera egin behar izan dute handik, Afedegik, Gipuzkoako kirol federazioen elkarteak, zabaldu duenez. Haien ordezkari batzuk bilera izan dute Foru Aldundiarekin. Nolanahi ere, Udalari, Anoeta Kiroldegiari eta Real Sociedadi dei egiten diete egunero Kirol Etxean lan egiten duten langileen osasuna zaintzeko, bai eta lehenbailehen esku hartzeko ere, kirol federazioek behar bezala jardun ahal izatea bermatzeko.

Según informan, la limpieza de la grada del campo genera riadas, y grandes humedades en las instalaciones, lo que pone en riesgo la salud de las personas y han obligado a desalojar ya a algunas de las federaciones, según ha difundido Afedegi, la asociación de federaciones deportivas de Gipuzkoa. Varios representantes se han reunido con la Diputación Foral. En todo caso, emplazan al ayuntamiento, así como a Anoeta Kiroldegia y a la Real Sociedad, a preservar la salud de los empleados que acuden a diario a su trabajo en la Kirol Etxea, así como a una urgente intervención que garantice el buen funcionamiento de las federaciones deportivas.

Hil honetako batzordean, Kiroletako zinegotzi ordezkariak adierazi zuen urtean behin egiten duten harmaila garbiketaren ondorioz pasatu zela ura, modulu aurrefabrikatuen sistema dela eta erraz pasatzen dela ura dilatazio-junturetatik. Gure taldeak esan zuen, ordea, 2019ko ekainetik ohartarazita zeukatela ura pasatzen zelako arazo hori foru-teknikariek, eta ez genuela ulertzen nola ez zen arazo

En la comisión del presente mes el concejal delegado de Deportes indicó que las filtraciones se habían producido a raíz de la limpieza anual que se realiza del graderío, ya que el sistema de módulos prefabricados facilita las filtraciones por las juntas de dilatación. Desde nuestro grupo, señalamos que la problemática de las filtraciones de agua ya se habían trasladado por parte de técnicos forales en el mes de junio de 2019 y

hori obrak egiteko garaian konpondu. Federazioak dagoeneko itzuli dira haien lokaletara eta jardueretara, eta, beraz, derrigorra da salatutako arazo horiek urgente konpontzea. Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio estadioaren azpietako hezetasun arazoak konpontzeko hartu behar diren neurriak hartzeko.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio formalki eskatzeko txosten bat Anoeta Kiroldegiko zuzendaritzari, federazioei Kirol Etxeko instalazioetara seguru ez itzultzeko arrazoiak argituko dituena.

3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Kirol Etxean lan egiten duten entitateekin batera lan egin eta konponbide bat bilatzeko harik eta orain diren hezetasun-arazoak konpontzeko neurri zuzentzaileak hartu arte.

Donostia, 2020ko irailaren 18a

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia”

que no entendíamos cómo el problema no había sido solventado durante la fase de ejecución de las obras. Una vez retornadas las federaciones a su actividades en las instalaciones, consideramos urgente resolver los problemas denunciados. Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a tomar las medidas necesarias para solucionar los problemas de humedades en los bajos del Estadio.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a solicitar formalmente a la dirección de Anoeta Kiroldegia un informe que aclare los motivos por los que no ha garantizado un retorno seguro a las federaciones a las instalaciones de la Kirol Etxea.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal con Diputación Foral de Gipuzkoa así como las entidades que desarrollan su labor en la Kirol Etxea al objeto de buscar una solución en tanto que se toman las medidas correctoras que solucionen los problemas actuales de humedades.

Donostia, de 18 de septiembre de 2020

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU**

**1. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, auzoen mantentzea dela eta.**

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hiriko auzoak garbi eta, oro har, kasu eginda edukitzeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den uztailean, hiriko auzoetako espazio publikoak zaindu, mantendu eta garbitzeari buruzko interpelazio bat aurkeztu genuen Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak). Zehazki, ohartarazten genuen plaza eta parke batzuk narras samar zeudela, eta eskatu genuen aisialdirako eta astialdirako espazio publiko horiek egoki mantentzeko.

Utzikeria eta garbitasunik eza nabaria zen leku horietako bat Ipar Intxaurrondoko Bernart Etxepare plaza zen. Plaza horretan, urmael bat dago, eta ordurako baziren sei hilabete ur geldiz beteta zegoela. Interpelazioa erregistratu ondoren, batzordeen aurreko egunetan, Hiri Mantentze

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al mantenimiento de los barrios.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del pasado mes de julio, relativa al mantenimiento de limpieza y cuidado en general de los barrios de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de julio llevamos a la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos una interpelación sobre el cuidado, mantenimiento y limpieza de los espacios públicos de los barrios de la ciudad, llamando la atención en concreto sobre el estado descuidado de ciertas plazas y parques, y solicitando que se llevase un mantenimiento adecuado de estos espacios públicos de ocio y esparcimiento.

Uno de estos espacios en los que era evidente el abandono y la falta de limpieza era Plaza Bernart Etxepare, en Intxaurrondo Norte, plaza en la que se encuentra un estanque que llevaba 6 meses lleno de agua estancada. Registrada la interpelación, en días previos a la celebración de las comisiones desde mantenimiento urbano se

atalak urmaeleko ura kentzeko agindua eman zuen, baina ez zuen garbitu putzuaren hondoan metatutako lirdinga.

Behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu hiri mantentzeari buruzko gaiak erregistratzea batzordeetarako, eta, harrigarriro, justu batzordeetan aztertu baino lehentxeago konpontzea arazoa. Halaxe gertatu zen Intxaurrondoko Zarategi pasealekuko etxeetako euri urak biltzeko saretarekin eta Intxaurrondoko osasun zentrorako sarbideak mozten zituzten hesiak kentzearekin (bereziki larria zen gurpil aulkian zihoazenei harako sarbidea ematen zien arrapalan sartzea eragozten ziena).

Hiri Mantentze zerbitzuak justu batzordeen aurretik esku hartzeko duen presa horren oraintsuko adibide bat jartzearren, hil honetan garbitu dituzte Bidebietako Salvador Allende parkearen izena adierazten duen seinalea eta Txileko politikariaren omenezko plaka. Irailaren 4an erregistratu genuen parkeko elementu horiek garbitzeko interpelazioa, eta irailaren 11n, Allenderen heriotzaren urteurrena gogoratzeko toki horretan egin zen omenaldian, jadanik esku hartu zutela ikusi ahal izan zuten bertaratu zirenek.

Alabaina, esku-hartze horiek oposizioko taldeek ekimenen bat erregistratu ondoren egiten dira beti; izan ere, ikusi dugu hainbat kasutan bizilagun partikularrek salaketa eta kexaren bat jarri eta atal horrek ez entzun egin diela. Batzuetan, urtebete baino gehiago behar izaten dute arazo horiei erantzuteko, eta horrek, jakina, eragin negatiboa du

dio orden de vaciar el agua, no obstante, no se procedió a limpiar el verdín acumulado en el fondo del estanque.

Ya hemos tenido en más de una ocasión la experiencia previa de registrar cuestiones de mantenimiento urbano para llevar a comisiones y que, sorprendentemente, se solucionan justo antes de que sean tratadas en las correspondientes comisiones. Así ocurrió con la rejilla de recogida de aguas pluviales de las casas del paseo de Zarategi, de Intxaurrondo, y con la retirada de vallas que cortaban los accesos de entrada al Centro de Salud de Intxaurrondo, siendo especialmente gravosa aquélla que impedía el paso en la rampa que permitía el acceso a las personas que necesitan desplazarse en sillas de ruedas.

Como ejemplo reciente de esta premura por parte de mantenimiento urbano de realizar las intervenciones de forma inmediata a la celebración de comisiones nos encontramos este mes con la limpieza de la señal que indica el nombre del parque Salvador Allende de Bidebieta y de la placa que se encuentra en él en homenaje al político chileno. Si el registro de la interpelación para que se procediese a la limpieza de estos elementos del parque se realizó el día 4 de septiembre, en el homenaje que se celebró en este lugar en conmemoración del aniversario del fallecimiento de Allende el pasado día 11 de septiembre, los ciudadanos y ciudadanas asistentes al acto pudieron comprobar que ya se había actuado en el lugar.

Sin embargo, estas intervenciones siempre se realizan a posteriori de que se registre alguna iniciativa por parte de los grupos de la oposición, pues nos hallamos casos en los que vecinos y vecinas particulares realizan sus denuncias y quejas y son desoídas por este departamento. En ciertas ocasiones la respuesta a sus problemas tarda en llegar más de un año, lo cual

herritarrengan.

Uste dugu plaza, parke eta lorategietan ez jarduteak eta, oro har, garbiketa faltak utzikeria sentsazioa eta ezinegona sortzen duela hiriko auzoetako bizilagunen artean; horrek, era berean, hiriko beste eremu batzuekiko kohesio falta dakar, eta erakunde publikoetatik eta haien kudeatzaileetatik nabarmen urruntzea. Eta, nahiz eta udal gobernuak ez duen uste hiriko auzoak inola ere desberdin tratatzen direnik, kontrakoa frogatzen duten ebidentziak aurkitzen ditugu.

Hori horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari garbitu eta behar bezala mantendu ditzala hiriko auzoetako plazak, parkeak, lorategiak eta gainerako espazio publikoak.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala azterlan bat auzoetako bizilagunek bizi diren tokietako mantentzeaz eta garbiketaz duten pertzepzioari buruz, eta hiriko Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoetatik has dadila.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari har ditzala hartu beharreko neurri zuzentzaileak, proposatutako azterlanean hiriko auzoetako bizilagunengandik atera diren ondorioak oinarritzat hartuta.

Donostia, 2020ko irailaren 18a

evidentemente afecta de forma negativa en la ciudadanía.

Consideramos que la falta de actuación en plazas, parques y jardines, así como de limpieza en general, genera a los vecinos y las vecinas de los barrios de la ciudad una sensación de abandono y malestar, que repercute a su vez en la falta de cohesión respecto a otras zonas de la ciudad y un notable alejamiento de las instituciones públicas y sus gestores. Y, a pesar de que el gobierno municipal no ve ningún tipo de tratamiento desigual entre los barrios de la ciudad, no dejamos de encontrar evidencias que demuestran lo contrario.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a proceder a limpiar y a llevar un mantenimiento adecuado de plazas, parques, jardines y demás espacios públicos de los barrios de la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal llevar a cabo un estudio sobre la percepción de los vecinos y vecinas de los barrios acerca del mantenimiento y limpieza de los lugares en donde viven, iniciándose este estudio por los barrios que componen el Distrito Este de la ciudad.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a proceder a tomar las medidas correctoras necesarias a partir de las conclusiones recogidas en el estudio propuesto entre el vecindario de los barrios de la ciudad.

Donostia, de 18 de septiembre de 2020

Haizea Garay Gallastegi
Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia“

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Pinudien Plazako komunak direla eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Pinudi plazako komunen egoerari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hiriko komun publiko batzuetako instalazioak

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los baños de la Plaza Pinares.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativa a la situación de los baños de la Plaza Pinares.

JUSTIFICACIÓN

Las instalaciones de algunos baños públicos

hobetzeko premia larria dago, herritarren irisgarritasun unibertsala bermatzeko. Komun publiko horietako batzuk gune publikoaren mailaren azpitik daude, eta, zaharrak direnez, ez dituzte irisgarritasun baldintzak betetzen. Pinudi plazako komunen kasua paradigmatikoa da; izan ere, eskailera batzuetatik sartzen da, eta ez dago beste biderik mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat. Beraz, komun publiko horiek, nahiz eta oinezkoentzako oinarrizko zerbitzu bat izan eta herritar guztien eskura egon beharko luketen, ez dira irisgarriak denentzat.

de la ciudad necesitan urgentemente de mejoras para en orden a garantizar una accesibilidad universal de la ciudadanía a los mismos. Algunos de esos baños públicos se sitúan por debajo del nivel de la vía pública y, por su antigüedad, no reúnen las condiciones de accesibilidad necesarios. El caso de los baños ubicados en la Plaza de Pinares es paradigmático, ya que se accede a ellos a través de escaleras y no existe otra alternativa de acceso para personas que tienen problemas de movilidad. Por tanto, nos encontramos ante una situación en la que, unos baños públicos, servicio básico para los y las viandantes y que deberían estar a disposición de toda la ciudadanía, no están siendo de hecho accesibles para todos.

Horrez gain, ordea, Pinudi plazako komunetan bada gehiegi luzatzen ari den beste arazo bat ere: euri asko samar egiten duen bakoitzean, urez betetzen da, putzuak sortzen dira, eta komunetako zorua zikintzen da.

A ello hay que añadir otro problema en los baños de la plaza de Pinares que se viene prolongando demasiado en el tiempo; cada vez se producen lluvias moderadas se inundan, encharcándose y ensuciándose el suelo de los baños.

Komun horietako langileek askotan ohartarazi dute arazo horretaz, baina ez da erantzun egokirik eman.

A pesar de que los y las trabajadores que se ocupan de estos baños han advertido en numerosas ocasiones sobre este problema, no se ha dado una respuesta adecuada.

Hil honetako batzordean, Diez zinegotziak adierazi zuen arazoa larriagotu egin dela egiten ari diren saneamendu obren ondorioz, baina adierazi ere zuen obra horiekin konponduko dela komunak istiltzeko eta urez betetzeko dagoen arazoa.

En la comisión del presente mes, el concejal Diez apuntó a que el problema se había agravado por las obras de saneamiento que se estaban llevando a cabo pero también apuntó a que estas obras iban a resolver la citada situación de encharcamiento e inundación.

Kontuan hartuta komuneko langileek urte asko daramatzatela egoera hori jasaten eta askotan hainbat orduz itxi behar izan dituztela komunak, garbiketa lanak egiten zituzten bitartean, beharrezkotzat jotzen dugu egoerari presazko erantzun iraunkor ematea. Era berean, beharrezkotzat jotzen dugu komun publiko

Teniendo en cuenta que son ya bastantes años los que llevan los trabajadores del servicio teniendo que sufrir esta situación y que en muchas ocasiones tienen que estar varias horas cerrados los baños mientras realizan las labores de limpieza, consideramos necesario que se dé una respuesta urgente y duradera a

guztietan irisgarritasuna bermatzea.

Hori horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari eman diezaiola irtenbide azkar eta behin betiko bat Pinudi plazako komunetan istiltzeko eta urez betetzeko dagoen arazoari.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari berma dezala hiriko komun publikoetako instalazioen mantentze egoki bat.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin ditzala egin beharreko esku-hartzeak hiriko komun publiko guztietan irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Donostia, 2020ko irailaren 18a

Haizea Garay Gallastegi
Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia"

la situación. Del mismo modo, consideramos que es necesario garantizar la accesibilidad en todos los servicios públicos.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a dar una solución rápida y definitiva a los problemas de encharcamiento e inundación de los baños de plaza Pinares.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a garantizar un adecuado mantenimiento de las instalaciones de los baños públicos de la ciudad.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a realizar las intervenciones necesarias para garantizar la accesibilidad universal en todos los baños públicos de la ciudad.

Donostia, de 18 de septiembre de 2020

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, bizikletariek Donostian daukaten egoerari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakar, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN bizikletariek gure hirian daukaten egoeraz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

COVID-19ak ekarritako pandemiaren ondorioz, handitu egin da paketeak partitzen aritzen diren enpresen eta jana etxez etxe eramaten aritzen diren elkarlaneko ekonomia esaten zaion plataformen jarduera. Hala erakutsi du Donostiako Udalak bultzatuta Ekonomia Suspertzeko Planaren (PREK) lehen fasearen ondoren egindako diagnostikoak ere. Igoera hori plataforma horiek ostalaritzan oso zabalduta egoteagatik etorri da, elikagaiak etxera eramateko aukera ematen baitie hark sektore horretako negozioei.

Azken urteotan asko ugaritu dira jana etxera eramaten aritzen diren plataformak. Bizikletari edo rider esaten diete plataforma horietan

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los riders en Donostia.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS relativa a la situación de los riders en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

La pandemia provocada por la COVID-19 está provocando un incremento de la actividad de empresas dedicadas al reparto de paquetería y de las plataformas de la denominada economía colaborativa dedicadas al reparto de comida a domicilio, tal y como reconoce el diagnóstico realizado tras la primera fase del Plan de Reactivación Económica (PREK) impulsado por el ayuntamiento de Donostia. Ese incremento ha venido motivo por ser una opción muy extendida por la hostelería, ya que permite a los negocios de este sector transportar alimentos a domicilio.

En los últimos años, han proliferado plataformas online de reparto de comida a domicilio donde los repartidores, conocidos

aritzen diren banatzaileei, eta oso lan baldintza txarrak dituzte. Beraz, gur irudituan funtsezkoa da jana etxera eramateko plataforma horietan lan egiten duten pertsonen lan baldintzak kontrolatzea. Izan ere, lehen ere oso lan baldintza kaskarrak zituzten langile horiek; eta orain, berriz ere jaitsi egin dizkiete –ez negoziatu eta ez ezer ere egin gabe– aurrez ere oso kaskarrak ziren ordainsariak. Gehiegikeria hori epai judizial batek baino gehiagok erakutsi duen iruzur egoerari esker egin dute, autonomo kontratua izateagatik, eta ez lan kontratua, izan behar luketen eran.

como riders, mantienen unas pésimas condiciones laborales. Consideramos, por tanto, fundamental controlar las condiciones laborales de las personas que trabajan para las plataformas dedicadas al reparto de la comida a domicilio. A la situación de extrema precariedad que ya vivían estos trabajadores se les suma el abuso realizado por las empresas que durante los últimos meses les han bajado de manera unilateral las ya exiguas cantidades que pagaban a las y los trabajadores. Este abuso los han realizado gracias a la situación de fraude, demostrada por diversas sentencias judiciales, por mantener una relación contractual de autónomos y no la de empleados que debería corresponder.

Sektore horietako langileek mugikortasun handia dute pandemia garai honetan, eta harreman zuzena eta etengabea bezeroekin, egiten duten lanaren ezaugarriak direla eta. Horregatik, bistan denez, beste sektore batzuetakoek baino arrisku handiagoa dute haiek birusaren erasanpean izateko; izan ere, beste sektore batzuetan errazagoa baita pertsonen arteko distantziak gordetzea eta pertsonen arteko kontaktu fisikoa murriztea.

En estos tiempos de pandemia, los trabajadores y las trabajadoras de estos sectores tienen una gran movilidad y un contacto directo y continuo con la clientela por las propias características del trabajo que desarrollan; razón por la que evidentemente están expuestos al virus de una manera más directa que otros sectores en los cuales es más fácil garantizar distancias entre las personas y minimizar el contacto físico entre éstas.

Beraz, derrigorra da neurri batzuk jartzea eta behar diren baliabideak ematea arlo horietan lan egiten duten langileen segurtasuna bermatzeko. Neurri horien bidez, gainera, saihestu egingo litzateke hainbesteko mugikortasuna duten sektore horiek birusaren transmisio-elementu izatea.

Se hace necesario, por lo tanto, establecer medidas y dotar de los recursos necesarios para garantizar la seguridad de las y los trabajadores que desarrollan su actividad en estos ámbitos, medidas que eviten además, que sectores de tanta movilidad puedan ser elementos de transmisión del virus.

Gaia dagokion zinegotzi ordezkariari batzordean interpelazioa egin ondoren, asmo adierazpen bat egin zuen hark; izan ere, esan zuen Enplegua Sustatzeko Planaren bigarren ekinaldian izango zela laguntzak jasotzeko halako baldintza batzuk bete behar izatea

Interpelado el concejal delegado en comisión al respecto, éste realizó una declaración de intenciones en el sentido de que en una segunda fase del PREK podría condicionarse la percepción de las ayudas al cumplimiento de una serie de condiciones para que desde las

sartzeko modua, laguntza eskatzen duten enpresek sektore horretako langileen lan eta segurtasun baldintzak bermatzeko. Hala ere, zinegotziak berak zalantzan jarri zuen irtenbide hori, zeren eta esan zuen laguntzak jasotzeko baldintza edo betekizun batzuk jarriz gero, ikuskatze-lana egin beharko litzatekeela ondoren, jarritako baldintzak benetan bete daitezen.

Gure ustez, badago bidea kontrol eta zaintza lanak egiteko modua emango duten ekimenak egiteko gure udalerrian, Udalak laguntzak emateko nahiz enpresekin egiten dituen kontratuetan jartzen dituen baldintzak betetzen direla bermatzeko.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio plan bat egiteko urgente, paketeak etxez etxe partitzen aritzen diren enpresak zaindu eta kontrolatzeko –elkarlaneko ekonomia esaten dioten plataformetakoak ere hor direla– eta gure hirian sektore horietan aritzen diren langileei egiten zaien gehiegikeria eta daukaten babes falta bukatzeko.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio bilera bat jartzeko hiriko ostalaritza sektorearekin, jana etxez etxe partitzen aritzen diren plataformekin eta sindikatuekin, gure hirian lan egiten duten banatzaile horiek COVID-19tik babesteko segurtasun protokolo bat jartzeko denen artean.

empresas solicitantes se garantizasen las condiciones laborales y de seguridad de los y las trabajadoras de este sector. Sin embargo, el mismo concejal cuestionó esta solución alegando que tras el establecimiento de una serie de condicionantes o requisitos para percibir las ayudas, posteriormente habría que realizar una labor de inspección, a efecto de que realmente se cumplan las condiciones estipuladas.

Por nuestra parte consideramos que a nivel local es posible desarrollar iniciativas que permitan acometer funciones de control y vigilancia en orden a garantizar que se cumplan las condiciones que el ayuntamiento interpone para la percepción de ayudas y en los contratos que establece con distintas empresas.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a llevar a cabo un plan urgente para la vigilancia y control de las empresas que realizan transporte de paquetería y de reparto a domicilio, entre ellas las plataformas de la llamada economía colaborativa, al objeto de acabar con la situación de abuso y desprotección de las y los trabajadores de estos sectores en la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a convocar una reunión con el sector de la hostelería de la ciudad, así como con las plataformas de reparto de comida a domicilio y las organizaciones sindicales al objeto de establecer un protocolo de seguridad para los y las repartidores en la ciudad frente a la

COVID-19.

3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio lan baldintzak eta COVID-19 birusetik babesteko segurtasun baldintzak betetzearen baitan izatea enpresek Enplegua Sustatzeko Planeko laguntzak izatea.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a vincular las ayudas del PREK al cumplimiento por parte de las empresas de las condiciones laborales y de seguridad frente al virus COVID-19.

4. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio eman behar diren pausoak emateko kontratuetan eta laguntza publikoen oinarrietan jarritako baldintzak betetzen direla kontrolatzeko unitate bat sortzeko eta, baldintza horiek betetzen ez badira, tokatzen diren zigorrak ere jartzeko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a dar los pasos necesarios para crear una unidad de control del cumplimiento de las condiciones estipuladas en contratos y bases de ayudas públicas municipales y, en caso de incumplimiento, imponga las correspondientes sanciones.

Donostia, 2020ko irailaren 18a

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia”

Donostia, de 18 de septiembre de 2020

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldiak jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia, D. Enrique Ramos Vispo y D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4 :**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Martuteneko legez kanpoko zabortegia dela eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta Martutenen legez kanpoko zabortegia izatearen gaineko KONTROL MOZIO hau dakar, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) interpelazioa egin eta gero.

JUSTIFIKAZIOA

Martutenen (Barkaiztegi bidean, garai batean Lanbide Heziketako Institutuaren sarrera zen tokitik gertu) legez kanpoko zabortegi bat zela ohartarazi zion Eguzki elkarte ekologistak Udalari otsailerako.

COVID 19 birusaren pandemiak eragindako geldialdia ulertu arren, Udalaren jarduerak ia erabat normal jarrita daude martxan berriz ere, baina, hala ere, han ez du ezer ere egin, ez eta han den zaborrik handik kendu ere. Horregatik, abuztuaren 26an berriro salatu zuen elkarte ekologista horrek zabortegiak han segitzen zuela.

Aurreneko aldiz salatutako egunetik ere denbora dezente joan denez –6 hilabete

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al vertedero ilegal de Martutene.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativa a la existencia de un vertedero ilegal en Martutene.

JUSTIFICACIÓN

La asociación ecologista Eguzki advirtió al ayuntamiento de la existencia de una escombrera ilegal en Martutene, en el camino de Barkaiztegi, cerca de la entrada del antiguo Instituto de Formación Profesional, ya el pasado mes de febrero.

Aun entendiendo el parón que se ha producido a raíz de la situación vivida por la pandemia del virus COVID 19, las actividades del ayuntamiento se han puesto en marcha casi con total normalidad y sin embargo, no se ha actuado ni se ha procedido a la retirada de esta escombrera. Por ello, la citada asociación ecologista volvió a denunciar su existencia el pasado 26 de agosto.

Considerando que han pasado varios meses desde la primera denuncia, concretamente 6

handi–, uste dugu Udalak zerbait egin eta kendu egin behar dituela Martuteneko legez kanpoko hondakindegian diren zaborrak handik. Hala, Gune Publikoaren Batzordeak hil honetan izan duen bileran egindako interpelazioari, Bide Publikoetako zinegotzi eskuordeak erantzun zion Udalak bazuela legez kanpoko zabortegi haren berri, baina han botatako gauzen artean uralita zegoenez, enpresa espezializatu batek haiek handik seguru bildu zain zeudela. Harrituta geratu ginen toki hartan material arriskutsua zegoelako eta hilabete hauetan guztietan batere isolamendurik edo babesik gabe izan direlako. Hori dela eta, guk uste dugu, aurren-aurrena, babes neurri batzuk hartu behar direla, eta, hurrena, lehenbailehen kendu handik legez kanpo botatako material horiek.

Gainera, azkeneko urteotan legez kanpoko zabortegiak ugaritzen ari dira gure hirian (hor ditugu Belartza II-koa, Mendiolako putzukoa eta abar). Ondorioz, guri iruditzen zaigu derrigorra dela ingurumenaren zaintza gogortzea, orain gertatu dena bezalakorik ez gertatzeko berriro.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio babes elementu batzuk jartzeko, Barkaiztegi bideko zabortegi legez kanpokoan botata diren zaborra arriskutsuak isolatzeko modukoak, harik eta haiek handik kendu arte.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Barkaiztegi bidean botatako materialak lehenbailehen eta seguru kentzeko handik.

meses, creemos que el ayuntamiento tiene que actuar y proceder a la retirada de la escombrera ilegal de Martutene. Ante la interpelación presentada en la comisión de Espacio público del presente mes, el concejal delegado de Vías Públicas, señaló que el ayuntamiento tenía constancia de la existencia del vertedero ilegal pero ante el conocimiento de que entre los vertidos había uralita, estaban a la espera de que una empresa especializada pudiera proceder a la retirada segura de los citados vertidos. Ante la sorpresa de que había material peligroso en el lugar, y éste no tenía ningún tipo de aislamiento o protección durante todos estos meses, consideramos que se han de tomar medidas primero de protección y en segundo lugar planteamos una retirada urgente de los materiales vertidos de forma ilegal.

Además de ello, dado que en los últimos años están proliferando los vertederos ilegales en la ciudad (Belartza II, charca de Mendiola, etc.), consideramos que es necesario reforzar la vigilancia ambiental al objeto de evitar situaciones como la actual.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a instalar elementos de protección que permitan aislar los residuos peligrosos de la escombrera ilegal del camino de Barkaiztegi hasta que se proceda a su retirada.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a proceder a una retirada urgente y segura de los materiales vertidos en el camino de Barkaiztegi.

3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio neurri batzuk hartzeko hiriko ingurumenaren zaintza gogortzeko, deus ere ez botatzeko legez kanpo.

Donostia, 2020ko irailaren 18a

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia"

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a tomar medidas para reforzar la vigilancia ambiental en la ciudad al objeto de evitar los vertidos ilegales.

Donostia, de 18 de septiembre de 2020

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6.Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Covid-19k Donostiako ostalaritzan duen eraginari eta terrazetan mahai kopurua handitzea eskatzeko malgutasunari buruzkoa.**

"Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la afección del Covid-19 a la hostelería donostiarra y la flexibilidad para solicitar la ampliación del número de mesas en las terrazas.**

"Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

aurkezten du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean COVID-19ak Donostiako ostalaritzan izan duen eraginari buruz eta terrazetan mahai gehiago jartzeko malgutasunari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre la afección del Covid-19 a la hostelería donostiarra y la flexibilidad para solicitar la ampliación del número de mesas en las terrazas.

JUSTIFIKAZIOA

Pandemia hasi zenetik, ostalaritzaren sektoreak ahalegin izugarria egin du, ekonomia eta antolamendu aldetik, establezimenduak egokitzeko, eta inbertsio handiak egin ditu ezarritako osasun eskakizunak betetzeko; izan ere, eskakizun horiek aldatu egin dira konfinamendua arintzeko fasetik “normaltasun berrira”, bai eta gerora ezarri dituzten murrizketen ondorioz ere. Hala ere, eskakizun horiek ezartzeaz bat, ez da egin ostalaritza sektorea suspertzeko kontingentzia planik, behar-beharrezkoa izanagatik ere. Eta ez hori bakarrik: gainera, oztopoak aurkitu dituzte administrazio batek eta bestek ezarritako mugak konpentsatze aldera jarduera edo edukiera areagotzeko orduan.

Hori dela eta, ostalaritza sektorea kalte larriak jasaten ari da, ezartzen ari zaizkion osasun betekizunen ondorioz, eta hori konparaziozko bidegabekeria argi bat da, agerraldiak izan dituzten beste jarduera eta sektore batzuekin alderatuz gero.

Pertsonentzako Zerbitzuan esan genuen bezala, Donostiako Udalak baimena eman die ostalaritzako establezimenduei terrazekin espazio publiko gehiago hartzeko, baina ez du eperik ireki terraza horietan mahai gehiago jarri ahal izateko. Mugatu egin zaie lokal barruan egon daitezkeen bezeroen kopurua, eta ez zaie

JUSTIFICACIÓN

Desde el comienzo de la pandemia, el sector de la Hostelería ha realizado un verdadero esfuerzo económico y organizativo para adaptar sus establecimientos, promoviendo fuertes inversiones económicas para cumplir con las diferentes exigencias sanitarias impuestas, que han ido variando desde las distintas fases de la desescalada hasta llegar a la “nueva normalidad“, y a las restricciones que se han ido imponiendo posteriormente. No obstante, tales exigencias no han venido acompañadas de un más que obligado Plan de Contingencia para reactivar el sector hostelero. Y no solo eso, sino que además, el sector se ha encontrado con trabas a la hora de poder ampliar la actividad o los aforos de manera que pudieran compensar las limitaciones a las que se les ha ido obligando desde diferentes Administraciones.

Por todo esto, la Hostelería se está viendo gravemente afectada por las exigencias sanitarias, en un claro agravio comparativo respecto de otras actividades y sectores en los que también se ha acreditado que se han producido brotes.

Como ya dijimos en la Comisión de Servicios a las Personas, el Ayuntamiento de San Sebastián, ha permitido que los establecimientos hosteleros amplíen los espacios públicos que ocupan sus terrazas, pero no ha abierto plazos para que puedan ampliar el número de mesas. Se les limita el

utzi murrizketa hori mahai gehiagorekin konpentsatzen, bezero horiei kanpoan kasu egin ahal izateko.

número de clientes que pueden albergar dentro de los locales y no se les permite compensar esa restricción con más mesas para que puedan atenderles en el exterior.

Horiek hala direla, hau da talde popularrak egiten duen

Por todo lo cual, el grupo popular presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, ohiz kanpoko neurri gisa, malgutu eta 2020ko urrira aurreratu dezala establezimenduen kanpoaldean mahai gehiago jartzeko eskaerak egiteko epea, COVID-19ak eragindako egoera dela eta.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a flexibilizar y anticipar al mes de octubre de 2020 el plazo para solicitar la ampliación del número de mesas en el exterior de los establecimientos como medida extraordinaria por la situación provocada por el Covid-19.

Donostia, 2020ko irailaren 16a

San Sebastián, a 16 de septiembre de 2020

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.7.Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, udal aurrekontuaren egoerari buruzkoa.**

“Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko uztailaren 13an Ogasuneko batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

SARS-CoV-2 (COVID-19) birusagatiko krisiak erabateko astindua eragin dio gizartearen antolaketari, guztion bizimoduari, edo egun bizimodua antolatuta dugun moduari, baita Donostian ere: eredu ekonomikoa zalantzan geratu da, milaka lanpostu suntsitu dira, zaurgarritasun egoerak biziagotu eta ugaritu dira, zaintzaren egungo kudeaketa eutsiezina bilakatu da, hezkuntza eskuratzeko eskubidea ezin izan zaie bermatu haur eta gazte guztiei, oinarrizko eskubideak urratu dira (poliziaren autoritarismoa eta gehiegikeriak), bistan geratu da egungo mugikortasuna ez dela eraginkorra eta kutsagarria dela... erabateko astindua eragin digu herritarroi, baita Udalari berari ere, bai bere antolaketan, eginkizunetan, baita diru kontuetan ere.

Egoera berriari aurre egiteko, Donostiako Udalak berbideratu egin behar izan ditu bere langileen eginkizunak, zerbitzuak eta diru baliabideak. Gainera, krisiak Udalaren diru sarreretan eragin nabarmena izan du, hainbat

**II.2.7.Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el estado del presupuesto municipal.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, someto la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La moción trae causa de la interpelación presentada en la Comisión de Hacienda de 13 de julio de 2020.

JUSTIFICACIÓN

La crisis generada por el virus SARS-CoV-2 (COVID-19) ha producido una gran sacudida a la organización de la sociedad, al modo vida de la generalidad de las personas o a la forma en la que hemos organizado la vida actual, incluso en San Sebastián: se ha cuestionado el modelo económico, se han destruido miles de puestos de trabajo, se han intensificado y han proliferado las situaciones de vulnerabilidad, la gestión actual de los cuidados se ha convertido en insostenible, no se ha podido garantizar el derecho a la educación a todos los niños y niñas y a la juventud, se han vulnerado los derechos fundamentales (autoritarismo policial y abusos), se ha puesto de manifiesto que la movilidad actual es ineficaz y contaminante… y, en definitiva, ha generado una convulsión radical en la ciudadanía y en el propio Ayuntamiento, tanto en su organización, como en sus funciones y en sus aspectos económicos.

Para hacer frente a esta nueva situación, el Ayuntamiento de San Sebastián ha tenido que reorientar las funciones, los servicios y los recursos económicos de su personal. Además, la crisis afecta de forma importante a los

zerga eta tasarengatiko eta Foru Funtsaren diru sarrerak asko urritu baitira. Horregatik, Udal talde honek zenbait proposamen egin zizkion Udal Gobernuari eskatzeko Ogasuneko batzordeko kideekin partekatzea aurrekontuan egingo ziren aldaketen irizpideak eta eskatzeko Ogasuneko batzordeko kideei jakinaraztea har daitezkeen salbuespenezko erabakiak (kontratuak bertan behera uztea...). Denbora honetan ez dugu eskari eta proposamen horien inguruko erantzun egokirik jaso. Apirileko batzordean, zinegotziari galdetu genion horien inguruan, eta erantzun zigun ez dela aurrekontuan aldaketarik egin, lerro berezi bat sortu dela Covid19agatiko gastu berezietarako; eta ez dela kontraturik bertan behera utzi, batzuk bai eten diren arren.

ingresos del Ayuntamiento, ya que se han visto gravemente reducidos los ingresos del Fondo Foral por diversos impuestos y tasas. Por ello, este grupo municipal realizó una serie de propuestas al Gobierno municipal, como compartir con los miembros de la Comisión de Hacienda los criterios de las modificaciones presupuestarias o como comunicar a los miembros de la Comisión de Hacienda las decisiones excepcionales que puedan adoptarse (resolución de contratos, etc.). Sin embargo, en todo este tiempo no hemos recibido una respuesta adecuada a estas peticiones y propuestas. En la comisión de abril preguntamos al concejal sobre las mismas y nos respondió que no se ha realizado ninguna modificación presupuestaria, que se ha creado una línea específica para los gastos especiales por COVID-19 y que no se ha anulado ningún contrato, aunque algunos sí que se han suspendido.

Apirilean ere, Alkateak hedabide bati jakinarazi zion Udalaren 2020ko aurrekontua iraungitzat jotzen zuela. Geroztik, birritan galdetu badugu ere, azkena uztaileko batzordean, gure taldeak ez du jaso Udal Gobernuaren eskutik aurrekontuari egiten ari zaizkion aldaketen oinarririk ezta aurrekontua ez exekutatzeko hartutako erabakien zehaztasunik eta irizpiderik ere. Era beran, joandako hilabeteotan, aurreikuspen ekonomikoen inguruko txosten bakarra jaso dugu talde politikook, arina eta aski orokorra berau. Horien inguruan galdetuta, Udal Gobernuak erantzun digu egoera zehaztugabea dela; ez dakiela oraindik zenbat iraungo duen, ezta nolako eragina izango duen osasun eta ekonomia krisiak ere; ez dakiela benetan zenbat ezohiko diru sarrera izango duen, ezta nola banatuko den ere; zorpetzeko aukera zenbaterainokoa izango den ere ez omen daki.

Asimismo, el alcalde manifestó a un medio de comunicación en abril que consideraba el presupuesto de 2020 caducado. Y aunque posteriormente hemos interpelado en otras dos ocasiones, la última en la comisión de julio, no hemos recibido por parte del Gobierno Municipal ninguna información sobre las bases en las que se sustentan las modificaciones presupuestarias que se están llevando a cabo, ni sobre los criterios y los detalles de las decisiones tomadas para no ejecutar el presupuesto aprobado. Asimismo, durante todos estos meses hemos recibido un único informe relativo a las previsiones económicas, un informe superficial y bastante general. Interpelado a ese respecto, el Gobierno municipal nos ha respondido que la situación es imprecisa, que todavía no sabe cuánto va a durar, ni qué impacto va a tener la crisis sanitaria y económica, que no sabe cuántos ingresos extraordinarios va a tener, ni cómo se van a distribuir, ni el nivel de endeudamiento

permitido.

Udal Gobernuak, ordea, 2020ko aurrekontuan jasota zeuden hamarnaka egitasmo murriztu egin ditu, zalantzan jarri ditu, edo, zuzenean, ez gauzatzea erabaki du; hala nola Morlanseko ikastetxeko egitasmoa, etxebizitzak birgaitzeko eta irisgarritasuna hobetzeko laguntzak, 2020ko laguntzen deialdiko lerro batzuen dirulaguntzak, Matigoxotegiko futbol zelaiko soropila berritzea, hainbat auzotako festen dirulaguntzak, Ekialdeko Barrutiaren 2019ko aurrekontuko soberakina eta 2020ko aurrekontua baliatzea, euskara ikasteko herritarrentzako 2021eko dirulaguntza saila, Merkearreko futbol zelaia... Hiriko gizarte eragileek, Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarrak edota hainbat auzo elkartek jakinarazi digute oso kezkatuta daudela.

Sin embargo, el Gobierno Municipal ha recortado, cuestionado o ha decidido, directamente, no llevar a cabo decenas de proyectos contemplados en los presupuestos de 2020, como el proyecto del colegio de Morlans, las ayudas para la rehabilitación y mejora de la accesibilidad de viviendas, las subvenciones de algunas líneas de la convocatoria de ayudas de 2020, la renovación del césped del campo de fútbol de Matigoxotegi, las subvenciones para fiestas de los barrios, el excedente del presupuesto de 2019 y la disponibilidad del presupuesto de 2020 del Distrito Este, la partida destinada a ayudas al aprendizaje de euskera de 2021, el campo de fútbol de Merkear, etc. En consecuencia, agentes sociales de la ciudad, la Asamblea de la Junta del Distrito Este o diversas asociaciones de vecinos nos han trasladado su preocupación.

Gauzak horrela, EH Bildu udal taldeak ere kezka adierazten du, garai honetara iritsita, herritarrok ez baitakigu aurrekontuaren exekuzioa zertan den; zer exekutatuko duen eta zer ez, ezta erabaki horiek hartzeko zer irizpide baliatzen ari den ere; orain arte zer diru sarrera izan dituen Udalak, ezta sarreren aurreikuspen berrituak zer emaitza duen ere.

En este sentido, el grupo municipal EH Bildu también manifiesta su preocupación por el hecho de que, llegados a este punto, la ciudadanía desconoce en qué situación se encuentra ejecución del presupuesto, qué se va a ejecutar y qué no, ni por qué criterios se está siguiendo para tomar esas decisiones; los ingresos que ha tenido el Ayuntamiento hasta la fecha, ni el resultado de la nueva previsión de ingresos.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari argipenak eta informazio zehatza emateko udal taldeoi, gizarte eragileei eta, oro har, donostiarroi, 2020ko udal aurrekontuak

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que informe y aclare a los grupos municipales, a los agentes sociales y a la ciudadanía donostiarra en general la situación

duen egoerari buruz: aurrekontuaren exekuzioa zertan den; egiten ari zaizkion edo egin asmo dizkion murrizketak eta aldaketak, eta erabaki horiek hartzeko zer irizpide baliatzen ari den; orain arte zer diru sarrera izan dituen Udalak, eta hurrengo sarreren aurreikuspen berrituak.

del presupuesto municipal del año 2020, esto es, el estado de ejecución del presupuesto, las reducciones y modificaciones que se están realizando o que se van realizar y los criterios que se están siguiendo para tomar dichas decisiones, así como los ingresos que el Ayuntamiento ha tenido hasta la fecha y una previsión de ingresos actualizada.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antolatzeko krisi mahai bat udal taldeokin, Covid19aren pandemiak eragindako egoera ekonomiko eta sozial makur honi irtenbidea guztion artean ematen saiatzeko.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que organice una mesa de crisis con los grupos municipales para tratar de dar solución entre todos a esta difícil situación económica y social generada por la pandemia del Covid-19.

Donostia, 2020ko irailaren 18an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D. Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

8. eta 14. kontrol mozioak elkarrekin eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 8 y n.º 14

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Covid-19 osasun krisian Donostiako ikasleen egoerari buruzkoa.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14ean Pertsonen Zerbitzuan Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Pandemiak bete-betean jo du hezkuntza-sistema lehen egunetik. Hezkuntza-komunitateak, arazo asko pairatu zituen konfinamenduan eta deskonfinamendu prozesuan. Eta ikasturtearen hasieraren data guztiz ezaguna zen arren, administrazio publikoak etxeko lanak egin gabe harrapatu ditu. Hezkuntza Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada ere, gogoratu behar da udalek eskumen asko dituztela arlo horretan, zehazki, ikastetxeak egokitzeaz eta mantenua egiteaz arduratzen baita, beste kontu batzuen artean.

Sei hilabete igaro direnean ikasgelak itxi zirenetik, eta ikasturte berriaren egun batzuk igaro direnean, salatu behar dugu Udal Gobernuak ez duela ia ezer egin Donostiako ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateei laguntzeko. Ez da soilik pandemiaren ondorioak arintzeko programa berezirik aktibatu ez izana, zentroekin ez dute harremanik izan.

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación de las alumnas y los alumnos de San Sebastián en la crisis sanitaria Covid-19.**

“Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público el pasado 14 de septiembre de 2020.

JUSTIFICACIÓN

La pandemia generada por la Covid-19 ha afectado de lleno al sistema educativo desde el primer día. Por ello, la comunidad educativa sufrió muchos problemas tanto durante el confinamiento y como durante el proceso desconfinamiento. Y a pesar de que la fecha de inicio del curso era más que conocida, ha pillado a la administración pública sin los deberes hechos. Si bien la educación es competencia del Gobierno Vasco, hay que recordar que los ayuntamientos tienen muchas competencias en esta materia, ya que se encargan de la adecuación y el mantenimiento de los centros, entre otras cuestiones.

Transcurridos seis meses desde el cierre de las aulas, y unos días del nuevo curso, debemos denunciar que el Gobierno Municipal prácticamente no ha hecho nada para ayudar a los centros escolares y a las comunidades educativas de Donostia. No sólo no se han activado programas especiales para paliar los efectos de la pandemia, sino que no ha habido contacto con los centros.

Konfinamendu garaian, EH Biluk bildutako datuen arabera, Donostiako ehunka ikaslek ordenagailurik eta/edo Interneterako sarbiderik gabe bukatu zuten ikasturtea. Eta jakin genuenarengatik, kasu askotan ikastetxeek beren poltsikotik ari ziren materialaren gabeziak betetzen.

Durante el confinamiento, según datos recogidos por EH Bildu, cientos de escolares donostiarras finalizaron el curso sin ordenador y/o acceso a Internet. Y por lo que supimos, en muchos casos eran los mismos centros los que, con cargo a sus propios fondos, estaban cubriendo las carencias de material.

Sei hilabete hauetan Udal Gobernuak denbora izan du ikastetxeekin batera ikasturte berria prestatzeko eta bere eskuetan zegoen guztia egiteko, baina hori ez dela horrela izan konturatu gara. Abuztuaren 26an EUDEL, Euskadiko udalen elkarteak, gutun bat bidali zuen haurrak eta nerabeak aurrez aurreko eskolatzea bermatzeko udal espazio publikoak identifikatzeko eskatzen, ikasleak beste toki batean kokatzea beharrezkoa den kasuetarako, eskatutako osasun baldintzak betetzeko xedearekin. Eta hori da Udal Gobernuak egin duen gauza bakarra, Donostiako kiroldegien eta kultur etxeen zerrenda egitea. Hala ere, salatu nahi dugu, zerrenda hori ikastetxeekin hitz egin gabe, auzoetako egoera ezagutu gabe eta eskolen beharrak ezagutu gabe egin dela.

Durante estos seis meses el Gobierno Municipal ha tenido tiempo de preparar con los centros escolares el nuevo curso y hacer todo lo que estaba en sus manos, pero nos hemos dado cuenta de que no ha sido así. El 26 de agosto la Asociación de Municipios Vascos EUDEL envió una carta solicitando la identificación de los espacios públicos municipales para garantizar la escolarización presencial de niños, niñas y adolescentes, en aquellos casos en los que sea necesario reubicar a los alumnos, con el fin de cumplir los requisitos sanitarios exigidos. Y eso es lo único que ha hecho el Gobierno Municipal, hacer un listado de los centros deportivos y culturales de Donostia. No obstante, queremos denunciar que este listado se ha realizado sin hablar con los centros, sin conocer la situación de los barrios y sin conocer las necesidades de las escuelas.

EH Bildurentzat lehentasunezkoa da ikastetxeetara modu seguruan eta adostuan itzultzea. Donostiari dagokionez, beraz, Udal Gobernuak dagokion eskumenen jabe, espazio irekiak eta itxiak ikastetxeen eskura jarri beharko lituzke, mugikortasun segurua sustatu, garbiketa indartu eta arrakala digitalari aurre egiteko neurriak hartu.

EH Bildu considera prioritario que el retorno a las aulas se haga de forma segura y consensuada. En el caso de Donostia, por tanto, el Gobierno Municipal debería, dentro de sus competencias, poner a disposición de los centros escolares los espacios abiertos y cerrados, promover una movilidad segura, reforzar la limpieza y adoptar medidas para combatir la brecha digital.

Baina, batez ere, Udal Gobernu honek egin beharko lukeena da, ikastetxeekin eta hezkuntza-komunitateekin lankidetzan aritzea eta haien eskaerei erantzutea.

Pero, sobre todo, lo que debería hacer este Gobierno Municipal es colaborar con los centros escolares y las comunidades educativas y atender a sus demandas.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila egun dituzten beharrak identifikatzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila ikasleak birkokatu ezin dituen salbuespeneko kasuetarako erabiliko liratekeen udal-espazio publikoen (itxien nahiz irekien) zerrenda elkarrekin osatzeko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila behar den kasuetan mugikortasunaren arloko neurriren bat har dezan, ibilbide seguruak edo bizikletaren erabilera indartzeko.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskolekin batera hartu ditzala behar dituzten garbiketa- eta desinfektatze-neurriak.

5.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari inguruko hezkuntza-komunitateekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lurralde Ordezkaritzarekin lankidetzan eskolen egoerak aztertzea eta behar dituzten baliabideak auzoz auzo antolatzea.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que se ponga en contacto con los centros escolares de Donostia para identificar sus necesidades actuales.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que se ponga en contacto con los centros escolares de Donostia a fin de elaborar conjuntamente la relación de espacios públicos municipales, tanto cerrados como abiertos, que serían utilizados para aquellos casos excepcionales en los que no se pudiera reubicar al alumnado.

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que se ponga en contacto con los centros educativos de Donostia para que en los casos que sea necesario adopte alguna medida en materia de movilidad que refuerce los recorridos seguros o el uso de la bicicleta.

4.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que adopte junto con las escuelas las medidas de limpieza y desinfección necesarias.

5.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que, en colaboración con las comunidades educativas de la zona y la Delegación Territorial de Educación del Gobierno Vasco, estudie la situación de las escuelas y a que organice los recursos necesarios por barrios.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

**II.2.14. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Donostian ikasturte hasiera dela eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, DONOSTIAKO IKASTURTE HASIERARI BURUZ.

JUSTIFIKAZIOA

Irailean modu mailakatuan hasi da ikasturtea Donostian, hilaren 7tik 15era bitartean, lehen eta bigarren hezkuntzako 34.000 bat ikaslerentzat.

Abuztuaren 28an argitaratu zen Eusko Jaurlaritzaren protokoloa, eta hezkuntzako langileek zehaztugabetzat eta eskastzat jo zuten; gainera, adierazi zuten ikastetxeak erantzukizun osoa beren gain hartzera behartzen zituela. Horren ondorioz, greba deialdi bat egin zuten irailaren 15erako, eta, egun horretan, 4.000 bat pertsonak manifestazio bat egin zuten Donostian, ikasgeletako itzulera seguru bat eskatzeko.

Irailaren 3an, hedabideetan argitaratutako albiste batek zioen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak koronabirusaren pandemia dela-eta leku gehien behar duten ikastetxeen zerrenda emango ziola Donostiako Udalari. Alabaina, batzordean gai horri buruz galdetu, eta zinegotzi ordezkariak azaldu zuen Udalak ez duela ikastetxeekin hitz egin, baizik eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emango diola Udalari ikastetxe bakoitzaren beharren berri.

**II.2.14. Moción de control, presentado el grupo Elkarrekin Donsotia, relativa al inicio del curso escolar en Donostia.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL RELATIVA AL INICIO DEL CURSO ESCOLAR EN DONOSTIA.

JUSTIFICACIÓN

Durante el mes de septiembre, de manera escalonada entre el 7 y el 15 de septiembre, dio comienzo el curso escolar en Donostia para alrededor de 34.000 alumnas y alumnos de primaria y secundaria.

Tras la publicación del protocolo del Gobierno Vasco el 28 de agosto, éste fue considerado por los trabajadores de la educación inexacto, insuficiente y que obligaba a los centros educativos a asumir toda la responsabilidad. Ello provocó la convocatoria de una huelga el 15 de septiembre, ampliamente secundada y que en Donostia se tradujo en una manifestación de unas 4.000 personas pidiendo un retorno seguro a las aulas.

El 3 de septiembre, apareció una noticia publicada en medios que decía que “el departamento de Educación del Gobierno Vasco entregará al Ayuntamiento de Donostia un listado con los centros educativos que necesitan más espacio con motivo de la pandemia de coronavirus”. Sin embargo, preguntada por este tema en Comisión, la Concejala Delegada explicó que desde el Ayuntamiento no ha habido interlocución con los centros educativos, sino que en todo caso será el departamento de Educación del Gobierno Vasco el que trasladará al Ayuntamiento las necesidades de cada centro.

Gainera, ikastetxeen garbiketari eta desinfekzioari dagokionez, Donostiako Udalaren zuzeneko eskumena baita hori, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen garbiketa protokolo berriak gauzatzen ari zirela. Hala ere, langileekin hitz egin dugu eta jakin dugu ez dutela inolako protokolo edo informazio berezirik jaso ikastetxeak garbitu eta desinfektatzeko moduari buruz.

Además en lo relacionado con la limpieza y desinfección de los centros educativos, cuestión que es competencia directa del Ayuntamiento de Donostia, la Concejala Delegada explicó que ya se estaban llevando a cabo nuevos protocolos de limpieza. Sin embargo, tras consultarlo con las propias trabajadoras, pudimos saber que no habían recibido ningún tipo de protocolo o información extra sobre cómo proceder a la limpieza y desinfección de los centros.

Bestalde, ikastetxeei bidalitako protokolo orokorrak (“Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko. 2020/2021. ikasturtea. Ikastetxeen kontingentzia-planak, egoera posibleetan, ikasgeletara itzultzean”) 3.1.20 puntuan honako hau dio: “Harremanak mugatze aldera, garraio aktiboa sustatuko da (oinez edo bizikletaz), eta ikastetxeak ikastetxerako ibilbide seguruak sustatzen eta bizikletentzako aparkalekuak handitzen saiatuko dira, udalekin lankidetzan, beharrezkoa izanez gero”. Hala ere, Udal Gobernuak ez du neurri berririk iragarri ikasleak ikastetxera oinez edo bizikletaz joateko programak indartzeko.

Por otro lado, el protocolo general enviado a los Centros Educativos “Medidas de prevención de riesgos laborales en los centros escolares de la CAPV ante el riesgo de exposición al COVID- 19 Curso 2020/2021, planes de contingencia de los centros educativos en distintos escenarios posibles, en la vuelta a las aulas” en el punto 3.1.20 dice que “Con el fin de limitar los contactos, se fomentará el transporte activo (andando o bicicleta) y los centros educativos tratarán de fomentar rutas seguras a la escuela y aumentar espacios de aparcamiento de bicicleta, en colaboración con los ayuntamientos, si fuera necesario”. Sin embargo, desde el Gobierno Municipal no se ha anunciado ninguna nueva medida encaminada a reforzar estos programas destinados a favorecer el desplazamiento de los escolares a pie o en bicicleta.

Ikasturtea hasita egon arren bi gai horiek konpondu gabe daudenez eta ezinbestekoa denez ikasgeletara seguru itzultzea, hau da gure

Estando ambas cuestiones sin resolver con el curso ya iniciado y siendo imprescindible garantizar una vuelta segura a las aulas, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zuzenean hitz egin dezala ikastetxeekin, koordinazioa hobetzeko eta

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a entablar una interlocución directa con los

ikastetxeen beharrak ezagutzeko, udal espazioren bat utzi behar izanez gero ere.

centros educativos con el fin de mejorar la coordinación y conocer las necesidades de los centros educativos por si fuera necesaria la cesión de algún espacio municipal.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari sortu eta abian jar dezala ikastetxeak garbitzeko eta desinfektatzeko protokolo argi bat, eta har dezala protokolo hori gauzatzeko behar den beste langile.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a crear y poner en marcha un protocolo claro de limpieza y desinfección de los centros educativos y a incorporar al número de trabajadores necesarios para hacerlo efectivo.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udal Gobernuari sor dezala udal eskola kontseilu bat Donostian, hezkuntza komunitatea osatzen duten gizarte sektoreek eta Udalak parte hartzeko, kontsulta egiteko eta aholku emateko gune izan dadin.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a crear un consejo escolar municipal en Donostia que sirva como espacio de participación, consulta y asesoramiento entre los sectores sociales que forman parte de la comunidad educativa y el Ayuntamiento.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hel diezaiela berriro ikasleak ikastetxeetara oinez eta bizikletaz joateko programei eta areago indartu ditzala.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a retomar e intensificar los programas destinados a favorecer el desplazamiento de los escolares a sus centros a pie y en bicicleta.

Donostia, 2020ko irailaren 18a

Donostia, a 18 de Septiembre de 2020

Izpta.: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea"

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**8. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**14. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 14:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, hiriko parkeen mantenua dela eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14ean Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

COVID19ak eragindako osasun-alarma egoerak erakutsi edo gogorarazi dizkigun

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el mantenimiento de los parques de la ciudad.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Espacio Público el 14 de septiembre de 2020.

JUSTIFICACIÓN

Entre las cosas que nos ha enseñado o recordado el estado de alarma sanitaria

gauzen artean espazio publiko irekien garrantzia dago. Azkeneko hilabeteetan plazak, hondartzak, mendiak, kaleak, parkeak... bihurtu dira herritarren topagune eta aisialdiaren oinarri. Haur eta nerabeen kasuan, jolasteko eta kirola egiteko guneen beharra ikaragarria izan da, kontuan izanda hezkuntza eta kirol ekintza guztiak bertan behera gelditu direla orain arte.

causado por COVID19 está la importancia de los espacios públicos abiertos. En los últimos meses las plazas, las playas, los montes, las calles, los parques... se han convertido en la base del encuentro y el ocio de la ciudadanía. En el caso de los niños, niñas y adolescentes, la necesidad de espacios para jugar y practicar deporte ha sido enorme, teniendo en cuenta que todas las actividades educativas y deportivas se han suspendido hasta la fecha.

Hauek horrela, espazio publiko garbi eta seguruak bermatzeko unea dela deritzogu. Urtero aurrekontu bat bideratzen da hiriko jolas parkeen mantenurako (hain zuzen ere, 225.000 euro 2020an) eta urtearen azkeneko hiruhilekoan gauden honetan hiriko parkeen mantenu beharrak handiak dira. Katalunia plazako parkea da horren adibide, aste honetan bertan hainbat erabiltzailek egindako kexetan ikusi daitekeen bezala.

En consecuencia, consideramos que ha llegado la hora de garantizar espacios públicos limpios y seguros. Cada año se destina un presupuesto para el mantenimiento de los parques recreativos de la ciudad (225.000 euros en 2020), y en este último trimestre del año las necesidades de mantenimiento de los parques urbanos son importantes. El parque de la plaza de Cataluña es un ejemplo de ello, tal y como se puede observar en las quejas que varios usuarios han realizado esta misma semana.

Hilabete honetako batzordeetan, delegatuak adierazi digu 2020ko parkeen mantenurako aurrekontutik (225.000 euro) 125.000 euro gastatu direla eta gelditzen diren 100.000 euroekin, hain zuzen ere, honako parke hauek konpondu nahi dituztela: Nafarroa Behera, Igara, Baldomero Anabitarte, Katalunia Plaza eta Araba parkea. Kontuan izanda urtea bukatzeko 3 hilabete falta direla, zaila ikusten dugu hobekuntza horiek aurten egitea.

En las comisiones celebradas este mes, el concejal delegado nos ha informado que del total presupuesto de mantenimiento de los parques del año 2020, que asciende a 225.000 euros, se han gastado 125.000 euros, y que con los 100.000 euros restantes se pretende realizar el mantenimiento de los siguientes parques: Nafarroa Beherea, Igara, Baldomero Anabitarte, Plaza Cataluña y Parque Araba. Teniendo en cuenta que faltan 3 meses para finalizar el año, vemos difícil que estas mejoras se puedan realizar este año.

Bestetik, hiriak urteetan izan duen gune estalien beharra inoiz baino nabarmenagoa da orain, esan bezala, garai honetako aisialdirako espazio publiko irekien garrantzia kontuan hartuta. Behar hau behin eta berriro gogorarazi diogu udal gobernuari, baina gaurkoz ez dago inolako plangintzarik edo proiekturik.

Por otro lado, la necesidad de espacios cubiertos que ha tenido la ciudad a lo largo de los años es ahora más evidente que nunca, teniendo en cuenta la importancia de los espacios públicos abiertos de ocio durante esta época. Esta necesidad ha sido reiteradamente recordada al gobierno

municipal por nuestro grupo, pero hoy por hoy no hay ningún tipo de planificación ni proyecto.

Inguruko udalerri batzuek, plangintza bateratua egin dute hezkuntza komunitatearekin batera, parkeen egoera hobetzeko eta hainbat espazio publikoren erabilera lehentasunez eskolen esku jarriz, haur eta gazteen aisialdirako zein hezkuntzarako eskubidea osasun berme handienekin gauzatu dadin.

Algunos municipios de la zona han elaborado, en colaboración con la comunidad educativa, un plan conjunto para mejorar la situación de los parques y poner a disposición de las escuelas de forma prioritaria el uso de diversos espacios públicos, al objeto de que el derecho a la educación y al ocio infantil y juvenil se ejerza con las mayores garantías sanitarias.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Es por todo ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hiriko hezkuntza komunitatearekin batera plangintza bateratu bat egin dezala, hiriko jolas parkeen egoera hobetzeko eta erabilera lehentasunez eskolen esku jarriz.

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que, en colaboración con la comunidad educativa de la ciudad, elabore un plan conjunto para mejorar la situación de los parques de ocio de la ciudad y poner su uso a disposición de las escuelas de manera preferente.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2021 urteko aurrekontuan gune estalien beharra kontuan hartu dezala, horretarako inbertsio bat bideratuz.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que considere la necesidad de espacios cubiertos en el presupuesto del año 2021, consignando una partida de inversión para tal fin.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Katalunia Plazako jolas parkearen mantenu beharrak ikusita eta parkearen erabilera handia dela kontuan izanda, lurzoruak behar dituen konponketak lehenbailehen egin ditzala.

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que, a la vista de las necesidades de mantenimiento del parque infantil de la Plaza de Cataluña y de su gran uso, realice las reparaciones necesarias a la mayor brevedad posible.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak eta Marta Huarte Paño andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López y D.ª Marta Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR AUSENCIA EN EL SALÓN DE PLENOS.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR AUSENCIA EN EL SALÓN DE PLENOS.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR AUSENCIA EN EL SALÓN DE PLENOS.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileei eta erabiltzaileei PCR frogak egiteko proposamena dela eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Osasun sailak 2020ko abuztuaren 19an argitaratutako aginduak hainbat betebehar jasotzen ditu COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak bermatzeko.

Haien artean, gizarte-zerbitzuetako zentro, zerbitzu eta establezimenduetan hartu beharreko neurriak jasotzen ditu:

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la propuesta de realizar pruebas PCR a los trabajadores y usuarios del servicio de ayuda a domicilio.**

